



## NORMALITATE BERRIRA EGOKITZEA. 2020-21 IKASTURTEA

Beste berririk izan ezean, irailaren 7an ikasleak ikastetxera bertaratzen direnean honako arauak jarraitu beharko dituzte. Dena den, egoera alda daitekeela kontuan izanik jarraibide hauek ere alda daitezke.

### GAIXOTASUNAREN SINTOMAK ANTZEMANEZ GERO

- COVID19arekin bateragarriak diren **sintomak** (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna...), dituzten **ikasleak ez dira ikastetxera bertaratuko**.
- COVID19a diagnostikatu zaielako **isolatuta** dauden ikasleak ez dira ikastetxera bertaratuko.
- Diagnostikoa jaso duen lagunen batekin harreman estuan egon delako etxean **berrogeialdian** dagoen ikaslea ere ez da ikastetxera bertaratuko.

- Etxeko norbaitek COVID19aren diagnostikoa jaso badu, gurasoek edo tutoreek horren **berri emango** dute ikastetxean.

- **Ikastetxean gaitzaren sintomak antzemanaz gero** (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna...), **ikaslea jasotzea** eskatuko zaio familiari. Familiak osasun zentrora deitu beharko du eta bertan aztertuko da ikaslearen egoera. Balorazioa izan arte, pertsona hori isolatuta mantenduko da.

- Gaitzaren **sintomak eskolako langileren** batean agertuko balira, honek **eskola utzi** eta etxera joango da eta gomendio berberak jarraitu beharko ditu.

### GAIXOTASUNA IZANEZ GERO

- **Ikasle edo irakasleren batek Covid19n positibo** emanez gero, **kontaktutzat** hartuko da gainerako ikasgela edo taldea, eta etxeko **berrogeialdia** egin beharko du 14 egunez, azken kontaktua izan den egunetik zenbatzen hasita. Osasun Sailaren SARSCov koronabirusa zaintzeko protokoloari jarraituko zaio eta zaintza epidemiologikoko unitatearen laguntza izango da.



## NOLA ETORRI ETA NOLA IBILI IKASTETXEAN

IKASTETXE OSOAN ZEHAR MASKARAREN ERABILERA DERRIGORREZKO IZANGO DA.

1.- **Sarrera**, IRAILAREN 8TIK AURRERA, taldeka izango da; **gelaka** ordutegi honen arabera:

ORDUA	TALDEA	LEKUA
7:45	1D, 1B, 1C, 1D	Kiroldegi aldeko eskaileretatik.
7:45	1E, 1F, 1G, 1H	Kiroldegi aldeko eskaileretatik.
7:50	1I, 1J, 1K, 1L	Kiroldegi aldeko eskaileretatik.
7:45	2A, 2B, 2C, 2D	Liburutegi aldeko eskaileretatik.
7:50	2E, 2F, 2G, 2H	Liburutegi aldeko eskaileretatik.
7:55	2I, 2J, 2K, 2L	Liburutegi aldeko eskaileretatik.

2.- Eraikuntzara sartu aurretik, ikasleek **eskuak garbituko** dituzte sarreran prest egongo den hidrogelarekin.

3.- Sartzeko, **jarraitu zehaztutako norabidea**, arau orokorra ikastetxean mugitzeko modua **eskubialdetik** izanik eta elkarren artean **1.5 m-ko distantzia mantenduz**.

4.-Geletan, ikasle bakoitzak **BETI ESERLEKU BERDINA** erabiliko du eta gelatik ateratzen den bakoitzean bere mahaia garbituko du.

5.- Gela **aireztatua** mantenduko da.

6.- Ikasle bakoitzak, beharrezkoa duen **materiala ekarri eta eramango du egunero**, eta beste ikasleekin **partekatzea saihestuko** du.

7.- Gela guztiek, **hidrogela**, **erabili eta botatzeko paperezko mukizapiak** eta **pedaldun eta tapadun zaborrontziak** edukiko dituzte.

- Saiatu eskuak gutxienez, bi ordutik behin hidrogelarekin garbitzen eta goizean behin, ura eta xaboiarekin.

- Ahal den neurrian, komunera joateko klase orduetan baimena eskatu, pilaketak saihesteko.

- **Komunetan, banaka** sartu eta besteok korridorean itxaron **distantzia soziala errespetatuz**.

8.- **Irteera**, IRAILAREN 8TIK AURRERA, **gelaka, ordutegiaren arabera** eta zehaztutako norabidea jarraituz.

ORDUA	TALDEA	LEKUA
14:55	1D, 1B, 1C, 1D	Kiroldegi aldeko eskaileretatik.
15:00	1E, 1F, 1G, 1H	Kiroldegi aldeko eskaileretatik.
15:05	1I, 1J, 1K, 1L	Kiroldegi aldeko eskaileretatik.
14:55	2A, 2B, 2C, 2D	Liburutegi aldeko eskaileretatik.
15:00	2E, 2F, 2G, 2H	Liburutegi aldeko eskaileretatik.
15:05	2I, 2J, 2K, 2L	Liburutegi aldeko eskaileretatik.